

ARETXABALETA / Arizmendi Ikastolan Irakurlearen Astea antolatu da ekitaldi desberdinekin

ARETXABALETA DV. Arizmendi ikastolan laugarren aldiz antolatu berri da Irakurlearen Astea. Oraingo honetan, astea beharrean bi astetan egiten ari da aurtengoan: martxoaren 27tik apirilaren 7ra. Beldurra hartu dute gaitzat. Egun handia astelehenean, hilaren 3an, izan zen Haur eta gazte literaturaren egunak. Ipuina kontatu zizkieten ikasleek beraiek baino gazteagoi. Gainontzeko egunetan ere egin eta egingo dute ekintzarik. Lehen Hezkuntzan ipuin erraldoia egingo dute mailen artean. Lehenengo eta bigarren mailetako ikasleek pertsonaiak asmatuko dituzte. Maila altuagoak arduratuko dira istorioa osatzeaz. Istorio galduen bila ere arituko dira ikasleak. Kasu horretan, ikasleei ipuin liburu baten zati bat emango zaie eta beraien lana izango da zati hori zein liburutakoa den asmatzea. Haur Hezkuntzan ere ekintza berdina egingo dituzte, adin horretako ikasleentzat moldatuta. Ekintzak eskolekin tartekatuko dituzte. Hori dela-eta, gune bakoitzak aukeratu du bi asteen barruan noiz egin ekintza bakoitza. Gune guztiek egingo dituzten ekintzez gain, gune bakoitzak ekintza gehigarriak antolatu ditu.

Hala nola: Basabeazpi gunean antzerkia egin zuten ikasleek eta magia saioa eskaini zizkien ikasleei irakasleek aurreko astean; San Viator Txiki gunean Maider Galarzak ipuin kontaketa egin zuen, aurreko ostiralean; Santa Teresa gunean Virginia Imazek ipuin kontaketa eskaini zien ikasleei, aurreko ostiralean; eta Gazteluondo gunean Maite Francok ipuin kontaketa egingo du, gaur. Arizmendi ikastolak apirilaren 23an den Liburuaren Nazioarteko egunaren inguruan egiten du Irakurlearen astea. Egunari buelta eman eta liburu beharrean irakurlea protagonista izatea da Ikastolaren asmoetako bat.